

## GIZARTEA ▶



Kaldereroen desfilea. HITZA

# Hemen dira kaldereroak

Herriko kaleetan zehar desfilea egingo dute bihar iluntzean, burrunbadan

## MAIDER DEL OLMO

Burrunbadaz beteko dira kaleak bihar. Kaldereroek pregoia arratsaldeko 19:30ean irakurriko dute plaza ondoko etxebizitzak batetik. Desfilea ondoren izango da, 20:30ean hasita. Aurten Beti Argi musika bandari egingo diote festako omenaldi txikia, musika taldearen 25. urteurrena dela eta. Berri-

kuntza bezala umeen desfilea izango da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez haurrek gogo handiz parte hartu dute entseguetan, eta ikuskizun polita ematea espero dute. Guztira 25 ume parte hartuko dute. Gurasoen artean ikusmin handia piztu du ekitaldiak.

Bederatzigarren urtea izango da aurtengoa, eta 300 lagunetik gora ibiliko dira desfile-

an. Iazko kopurua gaintitu nahi dute antolatzaileek. Herriarrez gain omenaldia jasoko duen Beti Argi bandak ere parte hartuko du herriko bi dantza taldeekin batera: Jakintza eta Urdaneta. Parte-hartze altua dela eta, desfilea urtetik urtera sendotzen ari dela uste dute konpartsa arduradunek.

Herriko kaleak zeharkatu ondoren plazan emango diote

amaiera festari. Kanpamendua Urdanetaren estatuaren ondoren jarriko dute.

Ijito neskek abestu eta dantza egiten dute; erreginaren papera gizonezko batek egiten du, eta umorea izaten da nagusi. Desfilean hartza joan ohi da denen aurretik, eta herriko hainbat elkartet segitzen diote prozesioan zartagiak joz, burrunbada batean.

## INGURUMENA ▶

## Oianguplataforma: «Udalak zer egingo du haltzadiko eta putzuko habitata babesteko?»

Arantzadiko Ornodun eta Botanika sailtako ikerlariekin batera taldeak irteera antolatu du biharko parkera, Altamiratik aterata

### M. DEL OLMO

Anfibioak gero eta gutxiago dira. Gainbehera oso zabalduta dagoen arren, Ordiziaren kasuan Oianguko egitasmoen gisakoek parkeko animalietan oraindik ondorio larriagoa izan dezaketela uste du Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak. Hori gerta ez dadin zein neurri hartuko dituen galdetu diote Udalarari. Plataformak biharko putzuko eta haltzadiko balio ekologikoa ezagutzeko irteera antolatu du, Arantzadi Zientzia Elkarteke ikerlariekin.

Plataformak, publiko egin duen ohar batean azaldu duenez, Oianguko putzua Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Katalogoan dago, eta parkeko haltzadiak Europako Batasuneko Habitat Arzetarauen lehenetsuneko habitat modura daude babestuenak.

Hori horrela izanda, kezkatzekoa dela ohartarazi dute Oiangun golf zelai bat eraikitzeko egitasmoa, eta euren kezka azalduz proiektuak galdere asko sortzen dituela uste dute: «Zer egingo du Ordiziako Udalak habitat hauek babesteko? Zer eragin izango lukete uraren kalitatean golf zelaian erabilitako gai kimikoek edota egin beharreko azpiegiturak? Eta bertan bizi diren animalia eta landareengan?».



Oiangu Egunean, ia. M. DEL OLMO

Azken hamarkadetan anfibio-populazioen gainbehera nabaria ematen ari da mundu mailan: Edurne Huesa plataformako kidearen esanetan, «badiudi, egin diren ikerketen arabera, faktore bakar baten ondorio izan beharrean faktore ezberdinen eraginez dela gainbehera: erradiazio ultramoreen gorakada, euri azidoa, pestizida eta ongarrrien gehiegizko erabilera, gaitzak, autoen zarpaketak eta batez ere habitataren galera edo murrizketak».

Gipuzkoan talde desberdi-

nak hainbat lan egiten ari dira hegoaldeko zuhaitz-igelaren habitatak berreskuratzeko asmoz, populazio horren kontserbazioa eta iraupena bermatu ahal izateko.

«Anfibioen egoera kezgarria izanda, ezinbestekoa da hauen ugalketarako guneen kontserbazioa eta ezagutzan sakontzea; batez ere kontuan izanda animalia bereziki sentisibletan direla, eta ondorioz habitatan kontserbazio egorearen eta kalitatearen adierazle onak direla», azaldu dute.

### Irteera Arantzadikoekin

Berebiziko garrantzia dute, plataformaren arabera, Oianguko putzuaren edo errekaostoen inguruan garatzen den haltzadiaren moduko habitatek, anfibioen garapenerako baldintza oso aproposak eskaintzen baitituzte.

Oianguko putzuaren eta haltzadiaren ezaugarri eta garrantzi ekologikoaren ezagutzan sakontzeko, Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak Arantzadiko Ornodunen eta Botanika sailtako ikerlariekin batera irteera antolatu du biharko. Goizeko 10:30ean abiatuko dira Ordiziako Altamirara auzoko Txola edaritegiaren aurretik. Goierriar denek egin diete gonbitea parte hartzeko.

## KULTURA ▶

## Mertxe Aizpurua ipuin kontaketa eskainiko du

Gaur arratsaldeko 17:00etan ipuin emanaldia izango da liburutegian. Mertxe Aizpurua izango da ipuin kontalaria. Batez ere lau eta zortzi urte bitarteko umei begira antolatutako ekimena dela jakinarazi dute liburutegiko arduradunek. Era berean, herriko umeak ez ezik haien gurasoak ere gonbidatu dituzte gaur arratsaldean egingo duten saiora, Barrena kultur etxera.

## PILOTA ▶

## Final erdiak zehaztuko dira aste honetan

Asteburu honetan amaituko da Euskal Herriko Txapelketako lehenengo fasea. Emaitzek datorren astean ospatuko diren final erdiak nola egokituko diren erabakiko dute. Gaur arratsaldean, Oho-rezko Mailan, Oianguko Arrieta-Aizpurua eta Berasategi-Andonegi bikoteek Iruñean jokatu dute. Larzuruko paletan San Juan taldea eta pala motzean UPNA taldekoak dituzte aurkari.

## POLITIKA ▶



Mikel Kortak eta Elena Beloki, Barrenako atzoko hitzaldian. HITZA

## 18/98 epaiketa gelditzeko eskatu dute

Mikel Kortak eta Elena Beloki, 18/98 sumarioan inportatuta dauden euskal herritarretako bik, auzia politikoa dela salatuz zuten, atzo. Barrena kultur etxean eskaini zuten hitzaldian epaiketaren oinarri juridikoa hankaz gora gelditu dela azaldu zuten. Epaiketa «zirkoa» izaten ari dela salatuz zuten. Hitzaldira jende ugari inguratu zen, 50 lagun inguru. Antolatzaileek jakinarazi zuten ez orain helburua Ordizian lan-taldea sortzea da, aurrera begira salaketa lana egiten jarraitzeko.